

IKASTETXEA	Pedro de Ursua B.H.I.		22-2B-12
IZENBURUA	Hondakinen globalizazioa	MAILA	4. DBH
IRAKASLEA	Arkaitz Errazkin Beltza	IKASGAIA	Hezkuntza Etiko-zibikoa

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

2. ATAZA

TESTUA

Hizpideak

Hondakinen globalizazioa

Koldo Aldabe
kaldabe@berria.info

Iragan martxotik maiztzer bitartean, 1.600 tona hondakin (etxeetakoak eta toxikoak) iritsi ziren Brasilgo portuetara Erresuma Batutik, 89 kontainerretan. Kontainerrek birziklatzeko plastikoak eroan behar zuten. Agi denez, azpajoko tratutan zebiltzan enpresak, baina harrapatu egin zituzten. Afera egunotan amaitu da, zarama guztia atzera jatorrizko herrira bidali eta gero.

Brasilen eta Erresuma Batuan titular bazuk eragin zituen afera hau, ordea, ez da deus mundu mailan ematen ari den hondakinen globalizazioarekin alderatuta. Bereziki hondakin elektronikoen legez kanpoko esportazio eta inportazioekin alderatuta.

Urteotan gehien hazi den hondakin mota da elektronikoa. Nazio Batuen arabera, urte-



Hondakin elektronikoak Ghanako Agbogbloshie zabortegian. EFE

an munduan 50 milioi tona hondakin elektronikoko sortzen da. Nazioarteko araudizorrotzak hitzartu dituzten arren, indarrean jartzeko traba ugari daude, eta AEBak gogor ari dira borrokatzen debekua erabazteko.

Ondorioz, hirugarren munduko hainbat herri hondakin elektronikoen zabortegi bihurtu

dira. Joan den urte amaieran, CBS kateko 60 minutetako programak AEBetako hondakin elektronikoen jasoak dituen Txinako eskualde bat bisitatu zuen: «Emakumeek kableetako kobrea eta pantailaetako metalak lortzeko erre egiten dituzte hondakinak (...). Zientzialari talde batek inguruak aztertu ditu, eta dixina kopuru handien duen munduko lekua dela ondorioztatu du: ura kutsatuta dago, nahi gabeko abortuak erruz ugari dira, hamar umetatik zazpik berun kantitate gehiegizkoa dute odolean...». Eta eskualde

horretakoa adibide bat baino ez da, hirugarren munduaren pozoitze progresiboa.

Asia izan da hondakin horien ohiko hartzailea. Orain, berriz, Afrikako ekialdera bidaltzen hasi dira, Ghanara besteak beste. Greenpeacek egunotan argitaratu eman duen informea dioen bezala.

JATORRIA

EGILEA	Koldo Aldabe
IZENBURUA	Hondakinen globalizazioa
ARGITALETXEA/Webgunea	Berria
URTEA	2009ko abuztuaren 21
ORRIALDEA (K)	4
ISBN	

TESTU-MOTA

ONARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Argudiozko-azalpenekoa
ERABILERA	Publikoa

JARDUERAK
1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU
1.1 Galdera
Esan hurrengo esaldiak egia diren ala ez: a) Albistearen arabera, Erresuma Batutik Brasila 1600 tona hondakin (birziklatzeko plastikoa) iritsi ziren martxotik maiatzera. b) Azken urteetan gehien hazi den hondakin mota elektronikoa da. c) Nazioarteko araudi zorrotzak hitzartu ziren, eta neurri horiek indarrean jartzeko gogor ari dira borrokatzen AEBak. d) CBS kateko programa batek hondakin elektronikoen Ghanako eskualde batean sortutako ondorio kaltegarriak aztertu ditu.
1.1 Erantzuna
a – gezurra; b – egia; c – gezurra; d – gezurra.
1.2 Galdera
Zer kalte eragin ditzakete hondakindegia elektronikoen inguruetako biztanleen artean?
1.2 Erantzuna
Dioxina kopuru altua, ur kutsatua, abortu kopuru handia, berun kopuru handia odolean...
2. ULERMEN OROKORRA
2.1 Galdera
Egin testuaren laburpena
2.1 Erantzuna
Brasilen hondakin toxikoen izandako aferak hondakinen globalizazioaren arazoa azaleratu du. Nazioarteko araudi zorrotza dago gaiaren inguruan. Baina hirugarren munduko hainbat herritan halako hondakinak bildu eta ondorio kaltegarriak pairatzen dituzte. Hondakinen hartzailak diren herri gehienak Afrika eta Asian daude.
2.2 Galdera
Zein da artikuluko helburua? Aukeratu erantzun egokia: a- Hondakin elektronikoen negozioa legalizatu eta zabaltzea. b- Txinako hondakinen kasua munduan ezagutzera eman eta halako gehiago gerta daitezkeen bermatzea. c- Hondakin toxiko eta kaltegarrien kontura dagoen negozioarekin kontzientziatu eta salatzea. d- Brasiletik Erresuma Batura ezkutuan eraman dituzten hondakin elektronikoen kasua jakinarazi eta salatzea.
2.2 Erantzuna
Erantzun zuzena c aukera da.
2.2 OHARRAK
3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK
3.1 Galdera
Legez kanpoko hondakin elektronikoen esportazio eta inportazioa zergatik da horren handia?
3.1 Erantzuna
Oso toxikoak diren hondakinak direlako eta lurralde aberatsek ez dituztelako beren lurraldean nahi.
3.2 Galdera
Zergatik dio artikuluko hirugarren mundua “pozoitze progresiboan” sartua dagoela?

3.2 Erantzuna
Hirugarren munduko herriak direlako nagusiki hondakin elektronikoko kutsatzaile eta toxiko horiek jasotzen dituztenak.
3.3 Galdera
Izenburuan ageri den “globalizazio” hitzaren esanahia azaldu.
3.3 Erantzuna
Globalizazioa , gaur egun dagoen komunikatzeko eta garraiatzeko erraztasuna dela eta, merkatuen arteko batasuna eta kultura eta gizarteen arteko hurbilketa mugitzen duen prozesua da. Kasu honetan, garraiatzen dena, inork nahi ez duen hondakina da.
4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA
4.1 Galdera
Zergatik izaten dira hirugarren munduko herrialdeak hondakin elektronikoen jasotzaileak?
4.1 Erantzuna
Oso kaltegarriak direlako eta herrialde horietan errazago delako nazioarteko araudiak ez betetzea.
4.2 Galdera
Zergatik izan dezakete AEBek halako interesik Nazioarteko araudiek ezarritako debekuen aurka borroka egiteko?
4.2 Erantzuna
Araudi horrek hondakin horien kudeaketa garestitu egiten duelako, eta debekuak arinduko balira herrialde hartzaile potentzial gehiago leudekeelako.
5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA
5.1 Galdera
Zergatik erabili du idazleak “pozoitze progresiboa” esakunea hirugarren munduko zabortegei buruz hitz egiterakoan?
5.1 Erantzuna
Hirugarren munduko herrialdeek hartzen dituzten hondakin elektronikoen ondorio txarrak azpimarratu nahi duelako “pozoitze” hitzaren bidez.
5.2 Galdera
Zure ustez, zergatik aukeratu dute argazki hau?
5.2 Erantzuna
Elektronikaren eta, hortaz, aurrerapenaren alderdi negatiboa.